



Ametzvaldekoa etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Amétzu



43° 10' 19"

2° 35' 6"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Bizitza bakarreko baserria, dirudienez *Ametzu* baserriaren arnagaren lekuan eraikitakoa XIX. mendean. Auzotarren artean ere, *Amétzu* moduan ezagutzen da. Egungo jabeek ez dakite ezer bigarren baserri honen jatorriaz, biak *Ametzua* direla diote. Gure ustez, askotan gertatu izan den moduan, jatorrizko arnagaren eraikina erabilita bigarren baserri hau eraiki zen, eta, horregatik, XX. mendean *Amezua viejo* (1910, BUA, RU) ageri zaigula biak bereizteko, horrek esan gura du beste eraikin berriago bat zegoela.

Etxe bihurtutako arnaga da, XIX. mendean eta XX. mende hasieran nagusitu zen estiloan, goranzko tendentzia igarritz, ondoko *Ametzua*

etxean (**Ikus Ametzua**) ez bezala. Materialak ere, orduan erabiltzen zirenak ditu: harlandua, kantaletan eta bao-inguru guztietan, eta eskasagoa, hormetan. Fatxada hiru ardatzetan antolatu zen, bi isurkiko teilatuaren babescan. Beheko solairuaren erdian, dinteldun atea dugu, eta alboetan, leiho bana; gainekoan, berriz, leiho bana behekoekin lerrokatuta; eta goikoan, azkenik, leiho luzea erdian eta txikiagoak aldamentan, teilatuaren okertasunari egokitzeko. Azken solairuko balkoi luzeak etxearen bertikaltasuna hausten laguntzen du. Hormigoia erabiltzeak, nahiz eta habeak egurrezkoak izan, beranduago burututako berrikuntza baten berri ematen digu.

toponimia

Izen gardena baldin bada hau da horietakoa Ametzua (Ikus Ametzua) baserri izenaz eta aldekoa hitzez osatua.